

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abenduak 10 / III. urtea / 105. zenbakia

Amen eta Omen



AINGERU EPALTZA

Zubia baino areago, 'puenting' izan da nirea. Zintzilik, alegia, etxean. Ez Alpeetara eskiatzera, ezta hegoaldeko eguzkiaren bila ere. Iruñeko gauen xarma nolabaitekoa dastatzeko paradarik gabe. Durangokoak sortarazten duen jakinmina asetzetik ere ez. Txapelketa Nagusia eta Eibar eta Bilboko saioak ikusteko ere, guraso-boteretzaz baliatu behar, telebistako marrazki bizidunak nahiago zituztenen protestak isilarazteko. Eta hala ere, aski lan. Goizero ispiluaren aitzinean jarri naizen aldioro, idiota bat ez ote nuen begira galdegin behar izan diot behin-bitan nere buruari.


Bistan da, patrikako zimurrek eta berehala Eguberrietan etorriko den deskalabroak ikustekoa izan dute, ikustekoa izan dutenez, etxean gelditzeko erabakiarekin. Krisia da.

Alabaina, horrek hainbat pisu izan du bidaian hasteak gero eta maizago ekartzen didan zorabioak. Pentsa ezazue. Maletak bete, eta katxarrerria guzia prestatu. Kilo-metroak egin arauz. «egarri naiz!» eta «jo nau!», taigabe. Gauean, toki ezezagunak sortarazten duen izu-ikarak eta ohe berean lau bukatzeko arriskua. Eskuarki, bapateko gripak eta sukarraldiak... Jainkoak libra nazala holakoetatik!

Idiota bai, hortaz, baina ez dut buruaz beste egin. Motxila bizkarrreratu eta eskurtsioan atera gara, mendiko haizeak eta nekeak munstrokumerik hezigaitzena baretzen dutelakoan. Bazkaria egiteko lana gure gainetik kendu dugu behin edo behin, ama-amaxiei ezarrit. Tarteka-marteka irakurtzeko beta ere izan dut —leitu duzue Pierre Combescoten 'La gesta de las pelirrojas'? Erabat gomendagarria—. Ordenagailuan, aspaldiko zirriborro batzuekin saltsatzeko egokiera ere ez da falta izan.

Idiotaren marka, dena dela, ez zitzaidan asteleheneko arratsa arte kendu bisaiatik. 'Golem-go' takilari izan zen. 'Aladin' filmara sartu nahirik milaka haur zeuden han, builaka eta zalapartaka. Eta haiekin batean, bertze hainbat aita-ama, guziek aurpegi bera erakusten zutela. Denak, zubian gabe, 'puentingean'. Haietarik aunitz, txartelik gabe eta haurren nigarrak sorgorturik itzuli ziren, noski, etxera. Segur naiz, nik bezala, batek baino gehiagok, bertzelako pertsona aurkituko zuela biharamuean ispiluaren aitzinean.

Ondoan, Lesakako plaza, 1961ko Bertsotxapelketaren saioan. Behean, Jose Mari Mutuberria Eltzaburuko, 1960an, Elizondan.



Bertsolariak? uste baino gehiago

Egaña, Lizaso, Sarasua edo Amuriza izenak ez zaizkio askori ezezagunak egingo, bertsozale amorratua ez izanda ere.

Koblak gustuko dituenak ezagutuko ditu,

hain segur, Txirrita, Uztapide edo Xenpelar. Baina Martin Olaetxea, Marijoan Igoa, Santxo Koblari, Andres Astiz, Antonio Ziaurriz edo Agustin Beloki bezalakorik adituko balu, harridura itxura azalduko luke kopetan. Nafarroako bertsolari zaharrak dira, urteetan herrietan ibili zirenak edo bertsoak paratu zituztenak, egun isilik eta ahantziak. Kike Diez de Ultzurrun Iruñeko kazetaria bertsolari hauen arrastoen bila aritu da azken urteotan, eta hemen leituta, han aditua, hauei galdezka eta besteei itaunka, bildu egin ditu bertsoak eta koplak, gaur egungo Arozenatarrak, Teiletxea, Fernandez edota Silveiraren aintzindariak, hain zuzen ere. Horien artean Jose Julian Madoz 'Gartxi' Ziako bertsolariarena. Nafarroan bertsolariak, beraz, uste baino gehiago izan dira, eta baita orain arte izan zirenik ere pentsatzen ez zen tokietan ere: Arakilgo Hiriberrin, kasu.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



'**Lurra zaindu dezagun**' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñeko Gotorlekuan, bertako udalak, Ansak eta 'la Caixa' fundazioak antolatutik. Ohizko ordutegia izanen du.

Pedro Osés pintorearen erakusketa ikusgai dago Lizarrako Banco Atlanticoaren aretoan. Erakusketak abenduaren 15a arte iraunen du eta bertan, komiki eta irudi bereziak ikus daitezke.

MINTZALDIK



'**XIX. mendeko** emakume idazlea' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du datorren asteazkenean, abenduak 15, Andres Amoros katedratikoak. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

'**Euskararen legearen** balorazioa' izenenburuarekin, mahaingurua izango da gaur, abenduak 10; Irurtzango Kultur Etxean. Euskararen Astea dela eta, gaia aztertuko dute Iñaki Cabases EAKoak, Martin Landa IUkoak, Patxi Zabaleta HBkoak, Manuel Lopez Mazuelas PSNkoak eta Yolanda Olasagarrere Euskara Teknikariak.

Alboka, Txirula. Txistua eta beste tresna musikalei buruz mintzatuko da gaur, abenduak 10, Ortzadar Taldea, Iruñeko Arrano Elkartean. Arratsaldeko 20.00etan hasita, ondoren, kontzertua eskainiko dute.

MUSIKA



Benito Lertxundi abeslariak kontzertua eskainiko du datorren asteartean, abenduak 14, Iruñean. Bertako udalak antolatutik, arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Gaiarre Antzokian.


Anje Duhalde eta Xabier Amuriza abeslarien kontzertua izango da bihar, abenduak 11, Aribeko Junta Etxean. Etxabarrengoa Elkartek antolatutik, gaueko 22.30etan hasiko da.

ZINEMA



'**Algunos hombres buenos**' izeneko pelikula botako dute datorren ostegunean, abenduak 16, Tafallako Español zinemak. Herriko Kultur Patronatoak antolatuta, bi saiotan emango dute.

Bardea Negra



Asteburu honetan —oraindik asteburuaren egarriz, izan den akueduktorekin?— hegoaldera joko dugu, ohituak aldatzeko bederen. 'Hegoalderik ere badago' edo antzeko zerbait zioen Victor Erize karantzarraren pelikula famatuak, eta orain ez dugu desku-bituko, baina Nafarroako hegoaldea ere ikustekoa dela gogoratu nehiko genuke hemen. Bardeei buruz hainbat aldiz hitz egin dugu, baina oso jende gutxi ezagutzen du benetan zer izkutatzen den ustez basamortua den eremu zabal honen atzetik. Horregatik, asteburu honetarako Bardea Beltza aukeratu dugu bisitatzeko, eta haize bero eta lehorrak hartzeko —sikiera gripea ezabatuko balu!—.

Ibilbidea Tuterara eta Ejea bitarteko errepidetik ateratzen da, Zaragozako mugatik kilometro eskas batera, Santa Margarita deitzen den tokitik. Hortik aurrera Mateoren etxera heldu arte, eta zuzen jarraitu, pistatik lehendabiziko malda igoko dugu, San Antoneira. Hemen paisaia asko aldatzen da. Lehen ugari ziren laboreak ere hemen aurki daitezke, baina ondoan ikusten dira Bardea Beltzan hain ugari diran pinudiak. Hortik eskuinera joko dugu, Erret Ardibidea topatu arte.

Hau zen Nafarroako ardibiderik garrantzitsuenak, eta oraindik badago Erronkaritik bide osoa oinez egiten duen artzainik. Ardien presentzia sailak erakartzen ditu, eta bertan aurki daitezke kopururik altuenak. Aurrerago Pablito-

ren etxola aurkituko dugu, eta malda igota berriro, eskuinera hartuko dugu. Negraren ordokian gaude. Hortik aurrera etxera jarraitzea besterik ez dugu. Negraren maldara heldu arte. Hortik jeitsi egin behar dugu, eta bideari jarraiki, Fidelen etxolara heldu. Bide aunitz topatuko dugu itzuliko bidean, baina zuzen jarraitzea besterik ez dago, errepidera heldu arte.

ASTEKO PERTSONAIK



Mikel Mindegia
Aizkolaria

Garbi erakutsi du Mikel Mindegia aizkolariak oraindik ere gai dela bera baino gazteagoei irabazteko, lasaitasunez gainera. Joan den igandean, Tolosako zezen plazan Angel Arrospide Euskal Herriko txapelduna erraz galendu zuen, bi minutu eta hamar segunduko alde atera baitzion. Bi milioi pezetak eta sarreraren erdia zegoen jokoan, eta Mindegia, 44 urtekin, ordubete eta 26 segundotan 60 ontzako 20 enbor ebaki zituen, sasoi onean dagoela erakutsiz. Gehienentzat ezustekoa izan zen hura, Arrospide txapeldunak, 37 urtekin, oso ongi zebilelako. Berak azaldu zuenez, «Arrospide gogor hasi zen eta denbora kendu zidan. Baina ondok segitzen nion, eta ez nion arnasa hartzen utzi. Hamargarren enborrean jada minutua banuen kendua».



Felix Taberna
IUko parlamentaria

PSN-PSOEri akordiorako deialdi berria egin dio aste honetan IU-Ezker Batua alderdi politikoak eta aldi berean, egoera ekonomikoaren aurkako protesta ekitaldiak egingo dituela azaldu du alderdi honek, larunbat honetan eztabaidatuko duten txostenaren bidez. Alde batetik, kritika gogorak bota dituzte IUkoek sozialisten kontra, eta bestetik, eskua luzatu diete, betidanik aipatu ohi den izkutuko gehiengo aurrerakoi hori gauza dadin. Era berean, eta honekin batera, mobilizazioak iragarri dituzte. Felix Taberna parlamentariak adierazi zuenez, mobilizazio hauek «hiru ardatzetan oinarritzen dira: konzentrazioa; mobilizazioa eta elkarriketa, azken hau gaur egun dagoen egoerari aterabide aurrerakoi bidez ihes egin ahal izateko».



Javier Markotegi
Hezkuntza sailburua

Tasen igoera eta Nafarroako Gobernuaren beken politika dela eta, NUPeko ikasleek mobilizazio ugari egin dituzte azken aste hauetan, baina gauzak ez dira aldatu. Markotegirekin bildu ziren eta berriro biltzeko eskaera egin dioten arren, sailburuak ez du oraindik erantzun. Era berean, Unibertsitateko azpiegiturak egiteko proiektuari buruzko informazioa eskatu zioten sailburuari, baina honek, oraindik behintzat, ez die ezer bidali. Gauzak horrela, NUPeko hiru sindikatuek antolatuta, manifestazioa izango da bihar arratsaldean Iruñean, bosi t'erdietan hasita, 'Benetazko Unibertsitate Publiko baten alde' lelopean. Mobilizazio honekin Javier Markotegi sailburuarekin biltzea lortu nahi dute, NUPeko arazoei buruz eztabaidatzeko.

AHAZTU GABE!

'**VIA LACTEA**' izeneko proiektioa prestatu du Iruñeko Planetarioak hilabete honetarako. Orain dela aste pare bat inauguratua, arrakasta handia sortu du eta egunero betetzen da Tornamira izeneko proiektio aretoa. Honetaz gain, erakusketa aretoa ere zabalik dago, eta bertan, garai guztietako jostailu espazialak ikus daitezke. Liburutegia eta mintzaldi aretoa ere badu Planetarioak, oraingoz ekitaldi askorik gabe. Proiektioei dagokienez, astelehenetan eta igande goizetan ez dituzte botatzen, itxi egiten baitute aretoa. Beste egunetan, ordea, goizez eta arratsaldean dago zabalik. Goizetan, ordea, ikasleentzako programa bereziak prestatu dituzte. Arratsaldetan guztientzat dago zabaldua, hala nola igande eta larunbat goizetan ere. Asteartetik ostiralera, arratsaldeko 18.00etan proiektioa botatzen dute, eta larunbatean, egun berezia denez, hiru proiektio ezberdin eskaintzen dituzte: 12.00etan, 18.00etan eta 19.30etan. Igande goizean, 12.00etan dute proiektioa. Sarrerak 400 pezetatan saltzen dituzte, eta gazte txartela edukiz gero, 300etan. Hogeilagun baino gehiagoko talde osatzen bada, 300 pezetatan salduko dituzte sarrerak.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, '**Zokobetailu**' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenetik 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

LEITZAKO

Karape irratia saio ugari eskaintzen ditu egunero, eta ostiralean, zehazki, 'Gauza guztien gainetik' irratiaioan kultura arloko gaiak sakonduko dituzte: zinema, erakusketak, herri kirolak, eta abar. Herria eta inguruko albisteak aparte, Nafarroa osoko informazioa entzun daiteke Karape irratiaren egunero. Gabon hauetarako 'xaski berezia' irabazi nahi baduzu, 'Inungo txapelketak' izeneko lehiaketan parte hartu besterik ez duzu.



HERRIZ BERRI



Altsasu

Kirolaz betetako astea

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Sakanako Kirol Aste interesgarria antolatu du astelehen hasi eta igande bitarte Mankomunitatearen Kirola Zerbitzuak. Urte urte gero eta sendoagoa azaltzen den kirol aste honetan izen handiko kirolarik hartuko dute parte, eta aste osoan zehar, Lanbide Aurrezki Kutxaren aretoan, futbola, pilota, saskibaloia, mendia, hegazkintza, eta txirrindularitza izango dira mintzagai. Halaber, irristaketa, et herri kirola exhibizioak izango dira Altsasun eta Uharte-Arakilen. Kirolzale guztiak asetzeko moduko programazioa.

Hitzaldiak arratsaldeko zortzietan izango dira denak eta astelehenean futbolaren txanda izango da. Jan Urban Osasunako aurrelaria eta Juan Mari Zabalza entrenatzailea Miguel Santos bitartekari ezagunarekin izango dira zaletuen aurrean, oraindik zehaztu gabe dagoen Lehen Mailako arbitro batekin batera, eta bertan hainbat gai jorratu eta eztabaidatuko dira, Txus Luengo kazetariaren moderazio lanak aginduta.

Asteartean, hilak 14, pilota izango da mahai gainean, bertako eta kanpoko kirolariek. Kike Elizalde eta Juan Antonio Lezea erremontista altsasuarrekin batera, dagoeneko erretiratu dauden Gorriz, Raul eta Gerardo Urteaga izango dira bertan, eta baita Eugi agoizkoa eta Ruben Beloki burlatarra ere. Edozein frontoiak nahiko lukeen taldea,



Kirolari ezagun frankok hartuko dute parte aste honetan.

JOXE LACALLE

hain zuzen ere, Javier Hernandez kazetariaren galderei erantzuteko.

Asteazkenean, bestalde, saskibaloia izango da eztabaidagai. Arfe Altsasuko taldea egiten ari den lana kontuan harturik, jendea erakarriko duen kirola, hain segur. Partaideak ere ez dira makalak izango.

Gasteizko Taugres eta Iruñeko Navarra Saskibaloia taldeen partaideak izango dira, Manuel Comas entrenatzailea eta Pablo Laso jokalariekin batera. Lasok gaingitu berri du Espainiako Ligaren asistentzia errekorra.

**ABREGO
ETA
ZUBIRI**

Mendiak ere ezin zuen huts egin, eta ostegunean, hilak 16 Mari Abrego eta Joseba Casimiro mendigoizale ezagunak Koldo Arnanz altsasuarra eta Serafin Zubirirekin batera ariko dira. Azken honek Aconcaguara egin nahi duen igoera izango da gairik interesgarrienetakoa.

Ostiralean hegazkintza izango da aipagai. Eugi eta Zenborain piloto profesionalek hainbat txapelketan irabazleak. Felipe Lezea izango dute lagun ihardue- ra ezezagun honi buruz azalpenak emateko. Gogoratu behar da

Lezea altsasuarra eskuz egindako hegaztia ari dela bukatzen Zelai kaleko bere tailerrean. Larunbatean txirrindularitza izango da nagusi, hainbat txirrindulari profesionalekin: Crespo, Arrieta, Pruden Indurain, Murgialdai, Alicia Amezarai eta Garziandia.

Hitzaldiaz gain pilota partiduak izango dira Burunda frontoian, eta asteartean irristaketa exhibizioa ikusi ahal izango da. Larunbatean ginkana egingo dute Burunda Txirrindulari Taldeko partaideak, eta igandean, hilak 19, herri kirola izango da ikusgai Uharte-Arakilen.

Gares

Euskararen II. Astea bihar zabalduko du 'Gure Aurreko Andrak' erakusketak

IRUÑEA

Garesko Euskararen Astearen II. edizioa zabalduko da bihar, 20.00etatik aurrera, Udaletxeko Erabilera Anitzeko Aretoan, 'Gure aurreko andrak' izeneko argazki erakusketarekin. Asteazkenean 'Euskararen berreskurapena Izarbeibarren' izeneko mintzaldia emango du gaztelaraz Jose Angel Irigarai idazleak, 20.00etan, eta ostegunean, hilak 16, Luis Mari Mujika filologoa Izarbeibarreko Toponimiari buruz ariko da, gaztelaraz hau ere.

Ostiralean, hilak 17, Garesko Udaleraren Euskara Zerbitzuak egindako 'El euskara en Valdezarbe (testimonios orales y escritos)' izeneko liburua aurkeztuko du, 19.30etan, eta beranduago



Musika, mintzaldiak eta giroa izango da Garesen.

Etzarri-Aranazko Ortizi Folk Musika taldearen saioa izango da. Herri Afaria, Garesko AEK-k antolatuta. Larunbatean, 18.00etatik aurrera, 'Everest PRI'93

espedizioari buruz ikusentzutezkoaren emanaldia izango da, Ramon Aguirreren eskutik, eta igandean 'Zirko Ttipia' umeentzako saioa izango da.

Irurtzun

Euskararen legearen eztabaida gaur

IRUÑEA

Aste honetan zehar ospatzen ari da Euskararen Astea Irurtzun, eta igandera arte luzatuko dira ekitaldiak. Gaur, arratsaldeko hiru terdietan, Eskolako Jantokian, Haur Jaialdia izango da, baina arratsaldean izango da udalak antolatutako aste honen ekitaldirik interesgarrienetakoa, 'Euskararen Legearen Balorapena' izeneko mintzaldiarekin. Bertan Martin Landa (IU), Patxi Zabaleta (HB), Iñaki Cabases (EA), Manuel Lopez Mazuelas (PSOE) eta Yolanda Olasagarre (Sakanako Mankomunitatearen Euskara Teknikaria). Bihar larunbata, Iratxo Elkartearen, Herri Afaria izango da, gaueko hamarretan, eta igandean, hilak 12, Dantza Jaialdia izango da, 'Erketz' taldearekin.



TAFALLAko hainbat pertsonai publikok parte hartu zuten asteazkenean bertako Peñek antolatutako drogaren kontrako jardunaldian. Kirolariak, politikariak eta jende ezagun franko bildu zen goizean zentru aldean, eta hiriko kale nagusienak zeharkatzen zituen drogaren kontrako 'Korrikan' hartu zuten parte, antortza olinpikoa eta guzti. Bigarren edizioa zen hau, eta horren ondoren Kross famatua burutu zen 500 bat korrikalarien partaidetzarekin. Bertan Lusarreta iruindarra nagusitu zen, Intxauspe donostiarrarekiko segundu bakar batez. Lasterketa bukatua irabazleak azaldu zenez, «oso gogorra» egin zitzaion zortzi kilometrotako proba.

MENDILLORRIK Olentzeroa izango du aurten, Nafarroako hainbat herrietan bezala. Bertako bizilagun batzuek animatu eta aurten lehendabiziko gabonetan hiri berriak giroa izan dezan ahalagindu dira. Horretarako txistuak eta gaitak ariko dira kalez kale, eta ardoa, gaztainak eta hainbat opari banatuko dira kaletan. Txapela kentzekoak dira horrelako ahaleginak, teoriak soilik lo egiteko egin den hiri berri batean.



LUZAIDE ingurua asaldatu egin da azken egunotan bertan omen dabilen gaizkile baten kariaz. Parisetik etorria, Arnegiko mugan polizi bat zauritu eta hanka egin zuen 25 urteko belgiar honek, Belgikako presondegi batetik ihes egin eta gero. Hori gertatu ondoren. Goardia Zibilak izugarriko operazioa paratu zuen martxan, baina larunbatean utzi egin zuen Nafarroa Beherea aldean zegoelako ustean. Asteburu luze honetan zenbait berri izan dira atxilotuak izan zela eta ez zela, baina azkenean baieztatu egin da horrelakorik ez dela izan.

IRUÑEA inguruan istripu berritan lazarriak izan dira asteburu honetan. Asteazkenean, egun beltza izan zen errepideetan, eta Marcelo Celayeta Arrotxapeko kale nagusian motorraz zebilen mutikoa harrapatu zuen abiada handian zebilen kotxe batek, ustez gorri zegoen semaforo bat gaingitu eta gero. Halaber, Iruñetik gertu, Itza-Erizen, hesi babeslea irentsi egin zuen beste kotxe batek, eta kotxea alderik alde akuilatuta gelditu bazen ere, gidariak ez zuen zauririk izan.

Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako Xake Txapelketako zazpigarren ihardunaldiko partida, 1993ko azaroaren 27an jokatu.

Jesus Javier Cortes, 2.255 ELOkoa (Iruñeko Anaitasuna) - Juan Jose Muñoz, 1.870 ELOkoa (Alesbesko Casino Gaiarre).

1. e4, e5; 2. Zf3, Zc6; 3. Ab5, a6; 4. Aa4, d6; 5. c3, Zf6; 6. d3, Ag4; 7. bZ-d2, Ae7; 8. h3, Ah5; 9. Zf1, d5; 10. g4, b5. Beltzek antzeko erantzuna ematea erabaki zuten, baina egoera ondo aztertu gabe. Hemendik aurrera, partida galduta daukate. Ikus koadroa. 11. h5, e4; 12. e4, a4; 13. Da4, Dd6; 14. Ze5. Bi peoi, zaldia... Benetako hondamena beltzentzat.

14..., 0-0; 15. Zc6, Zh5; 16. Ae3, Af6; 17. Gd1, De6; 18. e5. Beste segada eratu nahi dute txuriek. Ez da ateratzen, eta peoia galduko dute. Baina abantaila oso handia da. 18..., Ae5; 19. Gd5, Zf4; 20. Gd2, Ad6; 21. Ed1, Zd5; 22. Gg1, fG-e8; 23. Dg4, Ze3 xa; 24. Ze3, Dh6; 25. Zf5. Ez dago irtenbiderik. Txurien nagusitasuna erabatekoa da.

25..., Df6; 26. Zg7, Eh8; 27. Zh5, Dh6; 28. Dd4 xa, Ae5; 29. Ze5, Dh5 xa; 30. Zg4 xa, Eg8; 31. Ec1.

Beltzek jokoa utzi zuten. Astinaldi ederra, hamargarren jokaldian beharrezko gogoeta ez egitearen ondorioa.

Mutil irabazlea

J. MIGUEL ALDUNTZIN

Mutil hau baserri zahar batean bizi zen. Bere gurasoak nahiko zaharrak ziren eta aita oso gaiztoa zuen eta ama, berriz, onegia. Mutil honek futbolaria izan nahi zuen, baina bere aitak ez zion uzten. Haurra zelarik asko gustatzen zitzaion futbola eta eskolako batere ez zuen gogorik. Orduan bere aitak gauza bat esan zion. Klasean nota hoberenak ateratzen bazituen emango ziola gero futbolista izateko nahi zuen diru guztia.

Hortik aurrera, mutila eskolatik etxera joaten zenean, bere aitak egongelan sartzen zuen tarea egiteko. Mutilak, baina, ez zituen etxeko lanak egiten, baizik eta egongelan egoten zen, baloia-ekin jolasten. Bere aita hamarretan atea irekitzera joaten zitzaion, eta orduan liburu bat hartu eta irakurtzen jartzen zen. Aitak esaten zion ea lan asko egina zuen, eta gero telebista ikustera joateko esaten zion. Horrela, mutila etxeko lanak egin gabe joaten

zen klasera egunero. Baina egun batean bere aitak semeak egiten zion tranpa harrapatu zuen.

Orduan bere aitak pentsatu zuen etxetik bidaltzea, baina bere amak ez zuen nahi bere semeak baserri hartatik alde egitea. Horrela, mutikoa azkenik etxean gelditu zen. Egund batean mutila klasera zioala, bere ikastetxe inguruan loteria saltzaile bat ikusi zuen. Mutilak loteria bat erosi zion.

Hurrengo egunean klaserik ez zuten telebista egon zen mutila eta eguerdiko hamabietan esan zuten egun hartan atera zen loteriaren emaitza. Eta emaitza hura zen mutil horrek zeukan numeroa. Hurrengo egunean joan zen loteria saltzailearengana, eta loteria saltzaileak hamar milioi eman zizkion. Orduan mutilak etxetik alde egin zuen eta Bartzelonara joan zen futbolista, eta handik aurrera oso zoriontsua izan zen.

Hilabete pasa ondoren mutila ez zen baserrira joaten. Bere amak egunero negarrez pasatzen

zuen eta mutila ez zen baserrira joaten. Bere aitari, berriz, ez zitzaion batere axola. Igande goiz batean bere gurasoak ohean zeudela bere semeak telefonoz hots egin zien. Telefonoa bere amak hartu zuen eta aditzean bere semea zela ia erori zen pozarekin. Bere semeak azaldu zion dena zer egin zuen eta bere ama oso harriturik geratu zen. Hilabeteren bukaeran igande arratsalde batean baserrira azaldu zen. Bere gurasoak ikustean oso pozik geratu ziren. Mutilak esan zion Bartzelonan erosi zuen etxe hartara joan behar zutela bizitzera.

Bere amari oso ongi iruditu zitzaion baina bere aitari ez zitzaion batere ongi iruditu. Astelehen goizean maletak egiten hasi zirenean bere aitak alde egin zien, baina mutila laister joan zen atzetik eta azaldu zion dena, eta azkenik mutila, ama eta aita joan ziren Bartzelonara. Bere gurasoak etxe hura ikustean harriturik geratu ziren. Famili zahar hura handik aurrera oso zoriontsua izan zen etxe eder hartan.



Bortuak 2

Bortuak, hauxe dugu euskaraz Pirinioak esateko erarik jatorrena. Baina nahiz eta aspaldidanik ezaguna izan ez da maiz literatura eta kartografiara eraman. Agi denez, arruntegia omen da funtzio kulto bat betetzeko, hiztegiko hitz arrunt bat. Horregatik, agian, *Auñamendi* bultzatzeko arrazoia.

Baina izena zaharra da oso, baita euskal letretan ere. Oihenartek (1592-1675) Zuberoako atso-titz franko bildu zituen. Horietako bat, 372.a hain zuzen, honako hau zen: «Orhiko xoria Orhin laket». Ondoren honelaxe zioen: «Orhi da Bortuetan mendi gora bat, Nafarroako elgatako eta Zuberoako mugan». Erizpidé oneko mauletarrak jendearen artean aditzen zen izena idatzi zuen.

Sallaberry mauletarraren *Uskal Herri Maitiari* kantutegian *bortua* zenbait kantatn antzematen dugu *Bortian Ahizki* eta *Belhaudiko Bortian* 'sur la montagne' itzulita bietan.

Azkuek guzti horren berri izan zuen. Ireki dezagun hiztegia, 'bortu': 1. *desierto* 2. *BN R S Pirineo* lat. *portus* = *Se usa en plural*. 'Portu' 2. *AN BN Pirneo*, *Puerto de los Montes*. Pierre Lhanderen hiztegia: 'Bortu' (eta mortu eta portu aldakiak) 2º *Pyrénées* [du latin *Portus*] V. *ahuiemendi*. Eta gaur egun bizirik dago, zubereraz behintzat. Lehengo egunean ET-Bko Euskal Herriatik saioan 'Bortuko Üngürü' izeneko eman zuten eta horrela hasten zen: «Santa Garaziko komuna haran batean zehar hedatzen da Zuberoako hegomendebaldean nahiz eta bertako bizilagunek Bortuko üngürü deitzea nahiago izan». Programa berean J. Casenavek «Bortu hoik gora baitira» eta «Erronkariko eta Santa Graziko bizizaleak bildu zituzun bortu horietan».

Haratago joanez, ikusiko dugu izen berau erabiltzen dela beste eskualdetan ere (Erriberan eta Aragoian, baita Kantabria aldean ere). Irribarrenen *Vocabulario Navarron* hau irakurtzen dugu: 'Puerto' *Mendialdeko hegoaldeko haranetan eta Erriberan Pirinioari El Puerto deitzen ditoe, era berean Zaraitzu eta Erronkaribarri. Zaraitzun eta Erronkaribarren el Puerto esaten diete Balleko mendi komunalei...* Eranskin batean 'Los Puertos' *Los Pirineos Navarros*. Aragoian ere usu aditzen da. *Subir al puerto* (Cándanchú aldera joateko Sigüesen adi-tua), 'Aire de puerto, als tres dias muerto' *Benasqueko hizkeran...* Antzeko zerbait *Kantabriako Liebanan ere subir al puerto* Picos de Europa esan beharrean.

Bortuak, beraz, bikote ederra Pirinioekin batera. Ia hemendik aurrera gehiago aditu eta irakurtzen dugun baztertutako izen herritar hau. Elurrarekin batera izen hau erabiltzeko aukera izanen da.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak


Nire Aitaren etxea

Nik ere gustora defendituko nuke nire aitaren etxea, otsoen kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra, justiziaren kontra, behar denaren kontra. Nik ere gustora defendituko nuke nire aitaren etxea, baina nire anaia zaharra eta haren emaztea biak bakarrik kapazak dira defenditzeko, eta gainontzeko guztiak soberakoak gara.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Harriak jaurtikitzeko arma. 2.- Litioa. Gizonezko batentzat senide emea. 3.- Jausi. Aluminioa. 4.- Ospa! Urtaro bat. 5.- Bat eta bat. Amuaren erduan. 6.- Toka eta gipuzkoan, zuen, Metal mota. 7.- Irjdia. Aintza. 8.- Lurraldeak. Interjekzioa. 9.- Auziak.

GOITIK-BEHERA: 1.- Bizkaiko ibaia. Zilbor. 2.- Hiri nagusia. 3.- Lehenengoa. Gipuzkoako ibaia. Kontsonante bikoitza. 4.- Hegoaldean, gara. Zein lekutara. 5.- Ihardun. Mendebalean, haiz. 6.- Asiako estatua. Bazter. 7.- Egile atzizkia. Emirerriko buruzagia. Bokala. 8.- Egokierak. 9.- Sexu eme. Portu.

Bizi Bizian



Euskal Herri osoan oso zabaldua dago kantuz aritzeko ohitura.

Zortzi konpositore nafarren lanak biltzen dituen liburua kaleratu berri du Nafarroako Abesbatzen Elkarteak, Hezkuntza eta Kultura departamentuarekin batera. Ondarra, Sagaseta, Muneta edo Mujika bezalako egile ezagunen lanak, horrela, abesbatzen esku paratu nahi izan ditu elkarteak, ezagutu eta zabal daitezen.

Kantuz kantu

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Liburuan bizirik eta lanean ari diren nafar konpositore ezagunen lanak azaltzen dira, abesbatzek bertatik hartu eta landu dituzaten, eta lan hauek zabal daitezten. Izan ere, bi helburu lortu nahi izan dira liburu honekin, Jose Antonio Arlegi Nafarroako Abesbatzen Elkartearen lehendakariak aurkezpen egunean azaldu zuenez. Batetik, gaurko konpositoreen lana bultzatu, lagundu eta txalotzea, «gizarteak askotan baloratzen ez duen sormen lan batekin eredu bat osatzen ari baitira musikazale guztiontzat»; eta bestetik, abesbatzak osatzen duten ahotsei modu anonimo batez egiten ari diren lan handia erraztea «gaur egun gure herrian guretzat konposatzen ari den ikasteko gogoia eguneroko berri-zeko».

Zortzi musikagileren lanak aukeratu dira lehendabiziko edizio honetarako, zortziak franko ezagunak musikazaleen artean. Esate baterako, Ablitasen jaio-tako Felix Arellanoren 'Argizariak', 'Canción de cuna' eta

'Goizian goizik' lanak sartu dira. Egun Iruñeko Orfeoian artxibaria, folklore herrikoian eta euskararen oinarritutako lanak konposatu eta egokitu ditu abesbatzendako Arellanok, eta Aita Donostiak Ablitasen geroago jasoko zituen *aurora*-k berak konposatuak dira.

Jose Carlos Etxeberria iruindarraren 'Denok Belenera', 'Kyrie' eta 'O Domine Jesu Christie' lanak ere bilduak dira liburuan. Konpositore gazte hau armoniako irakasle da egun Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan eta bere hezkuntzan Pedro de Felipe eta Agustín González Azilú maisuezagunak azpimarra daitezke. Tafallako Udal Kontserbatorioko zuzendaria izan da eta baita bertako Tubala Uxo Koruko

zuzendaria ere. Halaber, Nafarroako Abesbatzen Federakundearen sortzaileetakoa da.

Fermin Iriarte zugarramurdiarraren 'Bozkario' ere badakar liburuak. Aita Lazkano eta Lorenzo Ondarrarekin ikasketak egin ondoren, Zangozako Nora Abesbatza, Iruñeko San Fermin Abesbatza eta San Fermin Ikastolako Eskolania fundatu zituen. Lan askoren egilea, liburuan agertzen den lan honekin irabazi zuen Iriartek 1990ean Iruñeko Konposizio saria.



Iruñeko Orfeoia.

Juan Carlos Mujika Iruñeko Orfeoia gaur egungo zuzendariaren hiru lan aukeratu dira: 'Domine exaudio orationem meam' 'Recitativo' eta 'Soneto'. Hain zuzen ere, azken lan horrekin irabazi zuen Mujikak 1982an Espainiako Konpositore Gazteen Sari Nazionala. Remigio Mujika Iruñeko Orfeoia fundatzaile eta zuzendaria izandakoaren biloba, Jose Luis Otxoa de Olza, Alfredo Kraus eta Carmen Bustamanterekin ikasi du eta 1993ko apirilaz geroztik Orfeoia zuzendaria da.

Jesus Maria Muneta Martinez konpositore famatuaren beste hiru lan jaso dituzte egileek: 'Ave Maria', 'Crux Fidelis' eta 'Poliphonia pascalis'. Larragan jaioa 1939an, Erromako Musikako Institutu Pontifizioan eliz

musikako magisteritza lortu zuen, eta gaur egun Teruelgo Musika Institutuko Kontserbatorioko zuzendaria da. Organo kontzertuak eta gregoriano ikastaro eta hitzaldi franko eman ditu. 1989an Espainiako Kultur Ministeritzako Arte Ederretako Zilarrezko Domina jaso zuen.

Lorenzo Ondarra bakaikuarra ere baditu bere lanak, 'Eguberri' eta 'Manifesto de Navidad' hain zuzen. Gregoriano ikasketak Madrilen egin ondoren, kaputxino honen zeregina lan didaktiko-musikalean oinarritu da bereziki, eta lankidetz handia izan du hainbat abesbatzarekin. Aurelio Sagaseta orain dela gutxi arte 'Pablo Sarasate' Kontserbatorioko zuzendaria izandakoaren 'Ecce Panis' lana aukeratu dute. Egun Nafarroako Organozaleen Elkartearen burua da eta baita Madrilgo San Fernando Arte Ederretako Akademiaren urgazlea ere. Azkenik Martín Zalbaren bi lan aukeratu dira: 'Attendite' eta 'La Noria'. Egun kontrapunto eta egitura musikalen irakaslea da 'Pablo Sarasate' kontserbatorioan.

JOXE LACALLE

Salbador Bergara

pilotaria

Salbador Bergarak utzi berri du pilota. Pasa den abuztuan belaunean izan zuen lesioaren ondorioz ez du berriro jokatzetik izan etxalartarrak eta egun Asegarcen enpresa sortu berriaren kirol zuzen-

daria da, gazteei aurrekaldean nola errematatu behar den erakusteko betebeharrarekin. Berarekin badoa aurrekaldean arriskatzeko gogokoa zuten belaunaldi baten partaide nagusienetakoa.

«Erasoa galdu da»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Abuztuaren 8an amaitu zitzaion pilota mundua, gerrikoa jantzita, behintzat, Bergara etxalartarrari. Bena lagun zuela, 16. tantuan meniskoa hautsi, eta nahiz eta partiduan jarraitu, hor amaitu zen 20 urteko karrera bixia eta berezia. Aurrelari erasokorraren irudia, Ladutxe edo Pierola ahantzezinen parera, galdua ikusten duen arriskatzeko grina berreskuratzen ahalginduko da hemendik aurrera Asegarcen, pilotari gazteekin. «Hori baita pilotaren grazia», dio.

EGUNKARIA.— 41 urterekin utzi duzu pilota. Beranduegi izan dela uste duzu, edo behar zen garaian?

SALBADOR BERGARA.— Kantxan aritzeko ez dut uste urte gehiegi direnik. Ezin baduzu goran ibili pilotan, orduan da momentu egokia. Nik txapelketa guztiak jokatu ditut, eta azkeneko hau izan da kanpoan gelditu nintzela, beraz...

EGUNKARIA.— Baina lehen jendea lehenago erretiratzekoa zen, eta azken urte hauetan atzetik erreleborik ez zegoela esan ohi da frankotan.

BERGARA.— Nik uste dut pilotariaren bizimodua ari dela luzatzen. Pilotari onek orain gehiago irauten dute, gimnasioa eta prestakuntza fisikoa asko aldatu delako. Alde horretatik begiratuta, bizimodu luzeago egiten dute pilotariek.

EGUNKARIA.— Azken urteotan pilota asko aldatu da, dela Asegarcen sorrera, dela pilota eskolaren garrantzia, dela telebista. Zaila izan zaizkue aldaketa hauei egokitzea?

BERGARA.— Pilota beti aldatu da. Nik ikusi dut nere anaien garaia, eta sistema berdina zen, baina prestakuntza asko aldatu da. Eta pilota jokatzeko moduan

ere, asko. Lajos eta Arroyoren garaian pilota askoz biziagorekin jokatzekoa zen, eta orain asko jeitsi da. Pilota motelagoak dira oraingoak.

EGUNKARIA.— Zure lan berrian pilotari erasokorrak eta aurrean jokatzekoa dakitenak berreskuratzen nahi zenituela zenion. Galdu egin da arriskatzeko ohitura, pilotaria kontserbadoreagoa da egun?

BERGARA.— Aurrean erasoan jokatzeko galdu egin da. Arriskatzekoa genuen pilotariak ari gara joaten, pilota uzten. Nere garai-koek, behinik behin pilotan asko arriskatzekoa genuen, eta hor genuen Pierola, Begoetxea III, neu... eta gelditzen direnak ere —Ladutxe, Begoetxea IV— helduak dira. Horiak joanez gero, mota horretako pilotari gutxi gelditzen da. Gainerako guztiak —Urionaguena, Lejardi, Salaberria, Alustiza— hau da, gelditu behar direnak hau bultzatzen egiteko, gutxi arriskatzekoa dute.

EGUNKARIA.— Erosotasuna gustuko dutelako edo, besterik gabe, pilota aldatu delako?

BERGARA.— Oraingoak joaten dira partidua irabaztera, arriskua gutxiago hartuta. Lehen ongi ateratzen zen batek pilota arriskatzekoa bazuen eta besteak pilota eramaten bazuen, partidua polita ateratzen zelako. Baina orain elkartzen ari diren arriskatzekoa ez duten bi pilotariak, eta partidua bi orduetara joaten dira. Eta hori ebitatu behar da.

EGUNKARIA.— Nafarroako betiko pilotariak iparraldetik sortu dira, hau da, Bortziriarak, Malerreka, Leitzaldea, Larraun... baina orain Iruñerria, edo Agoitz bezalako herrietatik heltzen dira. Pilota eskolen garrantzia gero eta handiagoa edo herrietako frontoiak gero eta txikiagoa?

BERGARA.— Hori ikusten dut nik ere. Lesaka, Etxalar, Beran, pi-



Bere azkenotako partiduan.

lotari asko ateratzen ziren lehen, eta afizioa pixkat galdu egin da. Baina atzera piztu egin da, hasten zarela begiratzekoa eta pilotari nahiko politak ikusten baitira, gazteak. Atzera etorriko da lehengo mugimendu hura.

EGUNKARIA.— Oraindik jokatzekoa da herrietako frontoietan?

BERGARA.— Jokatzekoa da, baina ez da beti etortzen gurea bezalako talde bat. Hori gutxitan gertatzen da, zortzi edo hamar urtetik behin. Baina Maizek 40 urte ditu eta

Errandoneak 28. Hor badira 11 urteko kolpe bat, eta orain badira Lesakako Taberna, Errandonea II. Zonalde horretatik aterako dira pilotariak oraindik.

EGUNKARIA.— Zuk jokatu duzun garai luze honetan nafarrak izan dira nagusi. Nagusitasun horrek aurrerantzean iraungo duela uste duzu?

BERGARA.— Garai handi batean naparrak izan dira nagusi, lehen Gipuzkoa baitzen lehena, baina oraindik ere urte askotan napa-

Garai handi batean naparrak izan dira nagusi, eta oraindik ere urte askotan naparrek aginduko dute pilotan».

rrek aginduko dute. Bizkai aldean ere nahiko mugitzen ari da, urte askotan geldirik egon ondoren.

EGUNKARIA.— Asegarcerekin aldaketa anitz izan dira —pilotariaren kontratuak, publizitatea, kamiseta gero eta koloreatuagoak—. Itxurazko ala funtsezko aldaketak dira hauek?

BERGARA.— Momentuan aldaketa handia da guretzeko. Orain arte pilota oso klasikoak izan da, edozein kirolari begiratu aldea edera izan baita azken hogeitau urte hauetan. Aldaketak etorri behar zuten, kirol gehienak publizitate bizi baitira. Gurea zen geldirik zegoena, eta nahi badu aurrera joan, aldaketak bidez joan behar du. Pilota partidua ikustera joaten direnekin ezin da dirurik ateratu, eta publizitatea sartzeko behar da pilota handitu. Orduan etorriko da publizitatea atzetik.

EGUNKARIA.— Orain pilota eta frontoiak utzi dituzu, baina ez erabat, atzean maisu lana egingo baituzu. Hala ere, aldaketa gogorra izan da edo erraz moldatu zara?

BERGARA.— Hogeitau urte aritu naiz profesional pilotan, eta beste zortzi bat aurretik, eta kosta egiten da uztea. Uste dut momentua zela uztekoa, urteak igartzen baitira. Gero, pentsatzen hasita, ikusten dut lan hau gustatzen zaidala, eta menperatzen ahal dudala. Hor lana badaukat gazteei erakusten, eta uste dut mozteko momentu onena izan dela.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

